

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Legazpiko Agenda 21eko Foroa Ekainaren 7an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean  
18:30etik 20:00etara



Elkarrekin hitz egiteko, lehenbizi galdetu; ondoren..., entzun.  
*Antonio Machado*

#### Agenda:

Hauxe izan da gaurko tailerraren aztergai nagusia: **Industrialdeko errotondarako** aurreikusi den hirigintza mailako hobekuntza. Elkarrekin udal proposamen desberdinak aztertu ditugu; eta, era berean, aukera horietako bakoitzetik zer dugun gustuko eta zer ez baloratu dugu.

Horrezaz gain, tailerrean ondoko bi gai hauen berri jaso dugu:

- Aste Berdearen barruan Udalak datozen egunetarako antolatu dituen **ekintzak**.
- 2010ean Legazpiko **Iraunkortasun-adierazleen** emaitzak.

Eta nola ez, hori guztia ez litzateke egin ahal izango honako hauen parte hartzea jasoko ez bagenu:

Jose Ignacio Gil (Gipuzkoako Ur Kontsortzioa) ♦ Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Floren Gutiérrez ♦ Montse Vallejo ♦ Pedro Barroso (Nagusilan) ♦ M<sup>a</sup> Ángeles Prieto (Buztintegi) ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Asier Zaldua (Noticias de Gipuzkoa) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Arantxa Seguro (Haztegi Ikastola) ♦ Elías Sagastizabal ♦ José Ramón Hernández (Nagusilan) ♦ María José Cantero (Nagusilan) ♦ Junkal Fernández ♦ Juan Valbuena ♦ Tere Pascual ♦ José Luis Cid ♦ Rafael Gómez ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Ixiar Ugalde (udal arkitektoa) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar Montejo (rometea, SC).


**Guztiori, eskerrik asko!** Berrito erakutsi diguzue zein inportantea den Legazpiko buruz elkarrekin hitz egitea, entzutea, pentsatzea, sentitzea.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Eta orain, lanera! Hainbat berri

Esandako orduan hasi gara bilera. Inmak Agenda 21arekin eta herriko iraunkortasunarekin lotuta datozen egunotan Legazpin burutuko diren ekintzen berri eman digu. Hona ekintza horiek:



- **Legazpiko bidegorria modu egokian erabiltzeko kanpaina.** Hauxe da adierazi nahi den mezua: *bidegorria bizikletentzako da eta autoak aparkatzeko, nahiz eta denbora laburrerako izan.* Kanpaina hori antolatzeko Udalak Korosti zikloturisten laguntza jaso du. Kanpaina datorren ostiralean, ekainaren 11n, hasiko da eta 3 egun solteetan pertsona bat ibiliko da kalean bidegorria modu egokian erabiltzeari buruzko informazioa eskainiz. 10 egunetan zehar informazioa eskaini ondoren, udaltzainek bidegorria modu egokian erabiliko ez dutenei isuna jarriko die.
- **"Fokatu Urola Garaia" argazki-lehiaketa.** Azkenean aurten berriro antolatuko da aipatu argazki-lehiaketa. Lehiaketan hainbat hobekuntza sartu nahi dira, horien artean herrikoia goa egitea.



- Hauxe da aurtengo lema: *oinez-caminando*
  - Lehiaketa zabalik egongo da irailera arte
  - Interesa duen edonork har dezake lehiaketan parte; ez da profesionala izan beharrik.
  - Lehiaketaren oinarriak udaletxean eta udal Web orrian daude ikusgai.
- **Mendi irteera Aranzadi elkartearekin,** "Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa" proiektuaren barruan. Larunbat honetan, ekainaren 12an izango da. Irteera goizeko 8:30ean izango da tregeltokian. Taldea Brinkolara iritsi eta Arripilleta eta Otaño guneak bisitatuko ditu. Ibilbideari arratsaldeko 14:00etan edo 15:00etan emango diogu bukaera.
  - Horrezaz gain, **uztailaren 9an hainbat ekintza burutuko dira kalean.** Ekintza horien helburua herritarrek udalerriko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen gainean duten iritzia jasotzea izango da. Jasoko diren iritzi eta hausnarketa horiek Aranzadi elkartearen ari den lanari erantsiko zaizkio.

### Hainbat emaitza: Iraunkortasun-adierazleak

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Berriak jaso ondoren, Inmak 2010ean Legazpiko iraunkortasun-adierazleen emaitzak aurkeztu ditu.

Urtero egin den bezalaxe, Legazpiko Udalak Udalsarea 21aren eta gainerako erakunde laguntzaileen laguntza jasota, adierazle nagusien emaitza eta bilakaera kalkulatu du.

Laburtuta, hauek dira aurkeztutako adierazleak eta emaitzen balorazioa:

Legazpiko Iraunkortasun Adierazleak. 2010	
1. Bidegorrien sarea	
2. Ibilgailuak: automobilak	
3. Ibilgailuak: motoak	
4. Ibilgailuak: kamioiak	
5. Etxeko ur-kontsumoa biztanleko eta eguneko	
6. Ur-eskaria udalerrian, guztira (uraren goi-hornidura)	
7. Lantegietan kontsumitutako ura	
8. Banaketa-sareko galerak uraren kontsumo osoaren ehuneko gisa	
9. Hiri-hondakinen sorrera biztanleko eta eguneko	
10. Hondakinen kudeaketa: birziklapena eta gaikako bilketa	
11. Lantegietan kontsumitutako elektrizitatea eta gas naturala	
12. Herritarren parte-hartze bilerak	
13. Langabezia-tasa	
14. Emakumezkoen langabezia-tasa	
15. Pobrezia eta baztertze soziala	
16. Pobrezia-maila. Gizarte-larrialdiko laguntzak jasotzen dituztenak	
17. Biztanleen zahartze-tasa	

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Aurkezpenaren ondoren, taldeko kideen iruzkinak antzekoak izan dira: *Lortutako emaitzetan egun jasaten ari garen krisialdi ekonomikoaren eragina antzematen da.*

- Batetik, baliabideen kontsumoak behera egin du: batik bat, sektore industrialean.
- Bestetik, adierazle ekonomikoek eta sozialek joera negatiboa aurkezten dute

Hausnarketa horiek mahai gainean utzita, amaiera eman diogu tailerraren lehen zatiari eta industrialdeko errotondaren gaineko eztabaidari eman diogu hasiera.

### Eztabaida-gaia: industrialdeko errotonda.

Hasteko, Sote eta Ixiar errotonda hobetzeko egin daitekeena hobeto azaltzen saiatu dira. Horretarako, honakoak azaldu dizkigute:



- Errotonda hobetu beharra Legazpiko Udalak onartu duen Bideragarritasun-planearan dago jasota.
- GI-2630 foru-errepidearen errotondak Legazpiko trafikoan dagoen korapilo garrantzitsua erregulatzen du:
  - Industrialdera sartzeko erabiltzen delako.
  - Olaondo zeharkaletik datorren eta Zumarragara doan trafikoaren irteera erregulatzen delako; beraz, ihesbidea da.

Bestetik, Legazpiko **Hiri-antolamendurako plan orokorrak** honakoa aurreikusten du:

- Legazpiko hirigunean 4 parke edo berdegune garrantzitsu egongo direla. Honako hauek: Telleriarte, Mirandaola, Urtatza-zahar eta Agirre Etxeberri
- Agirre Etxeberri parkeak L forma du, txikia da eta bere kokapenak industrialdeko errotondan burutuko den hirigintza-jarduketa baldintzatzen du

Irudietan, honako hau da abiapuntuko egoera:

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Hobetu beharrako errotonda Legazpiko Mugikortasun-planaren arabera.


Agirre Etxeberri parkea: berdegunea hiri-antolamendurako plan orokorraren arabera

Olaondo Zehar Kalea: ihesbidea Mugikortasun-planaren arabera

GI-2630 errepidearen egungo ibilbidea Urola kaletik

Hasierako azalpenen ondoren, Ixiar Ugalde udal arkitektoak, Udala aztertzen ari den hiru aukeren berri eman digu. Esan beharra dago Udalak, batik bat 3 aukera horietatik 2 azertu dituela bereziki; hala ere, Legazpiko Agenda 21eko Foroak hirugarren aukera ere azaltzea eskatu du.

### 1. Aukera



- Errotondak edozein motatako ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak betetzen ditu
- Urola kalearekin lerrokatuta geratzen da. Errotonda zuzena da baina gero aldapa dago industrialdera sartzeko
- Industrialdera sartzeko bidea zabaldu egin beharko litzatekeela uste da
- Parkea ukitzen du eta 3 metroko eustorma jarri beharra dago (egungo eustorma 1,5 metrokoa da)
- Olaondo zeharkalean oinezkoen pasabidea aldapatsu geratzen da.
- Autobusak geratzeko lekua zehaztu da: bertan Zumarragatik datorren autobusa geratu eta herriko mikrobusa hartuko litzateke.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 2. Aukera



- Errotondak edozein motatako ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak betetzen ditu
- Errotonda tokialdatuta geratzen da Urola kalearekiko
- Industrialdera sartzeko erdi-errotonda bat sortzen da. Industrialdera sartzeko bideak 1. Aukeran baino aldapa handiagoa dauka.
- Parkea ez da ukitzen.
- Bi aldetan autobusa geratzeko lekuak egokitzen dira: helduera eta irteera.

### 3. Aukera



- Errotondak edozein motatako ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak betetzen ditu
- Errotonda tokialdatuta geratzen da Urola kalearekiko eta zentratuta geratzen da Olaondo zeharkalearekiko
- Parkea ez da ukitzen
- Autobusak geratzeko lekua zehaztu da: bertan Zumarragatik datorren autobusa geratu eta herriko mikrobusa hartuko litzateke

Azalpen horiez gain, Ixiarrek erabakia Legazpiko Udalaren eskuetan dagoela adierazi du. **1. eta 3. aukerak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu dira eta teknikoki burutu daitezkeen jarduerak direla esan da. Horrezaz gain, 2. aukerak baldintza tekniko berberak dituela zehaztu da.**

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Testuinguru hori izanda eta informazioa mahai gainean edukita, **zer eskatu diogu taldeari?** Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakoitzetik zer duen gustuko eta zer ez adieraz dezala eskatu dugu.

Eta hauxe da lortu dugun argazkia:

### 1. Aukera



#### Atsegin dugu:

- Ardatz nagusiarekin zentratuta dagoela
- Errotonda zentratuago dagoela; guztietatik, trafikoa hoberen erregulatzen duena da
- Zentratuago dagoela
- Erdirago egotea
- Errotonda bide erdian dagoela eta aldaparik ez dagoela; autobusa edo mikrobusa gelditzea ahalbidetzen du.
- Autobusak geratzeko lekua
- Errepidea nahiko zuzen doala

#### Ez dut atsegin:

- Industrialera sartzeko aldapa dagoela
- Parkea ukitzen duela
- Lorategiak puskatzen dituela
- Parkearen zati bat puskatzen dela
- Parkearen zati bat puskatzen dela
- Parkeari zati bat kentzen zaiola
- Parkea puskatzen duela
- Ez zait ondo iruditzen parkeari lur-zati bat kentzea
- Parkeari lur-zati handia kentzen zaiola eta diseinua ez da beste aukeretakoa baino hobeagoa.
- Berdegunea kentzen dela; eusteko horma oso handia dela
- Patricioko horma mozteak suposa dezakeena: oinezkoen pasabidea aldapatsua izango da
- Oinezkoen ibilbidea aldapatsuagoa dela; eusteko horma egin beharko da eta hori ez da oinezkoentzako atsegina; lorategi zati bat kentzen da.

### 2. Aukera



#### Atsegin dugu:

- Errotondan sartzeko abiadura gutxitu beharko dela
- Erregularragoa dela
- Autobusen funtzionaltasuna
- Aldapa gutxiago duela
- Parkea errespetatzen dela

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 2. Aukera

#### Ez dut atsegin:

- Industrialdetik irteteko kamioientzako aldapa gehiegi duela
- Aldapa handia geratzen dela iruditzen zait
- Irlatxo gehiegi daudela
- Ez dela bidegorria aurreikusten da
- Ez ditut autobusak geratzeko lekuak atsegin
- Autobusa bi aldetan egotea
- Errotonda ez dela erdian geratzen Ez dela funtzionala
- Ez dela zentratuta geratzen
- Zentratuta ez dagoela
- Errotonda zentratuta ez dagoela; aldapa dago eta industrialderako sarbidea korapilatu egiten da bi adarkadurekin
- Industrialderako sarbidea konplikatu egin dela; aldapa gehiegi dagoela
- Ez da eroso norabide bietan

### 3. Aukera



#### Atsegin dugu:

- Proporzionalagoa dela
- Zentratuta geratzen dela parkea ukitu gabe
- Aukera orekatuena da; errotonda zentratuago geratzen da eta horrek trafikoa erregulatzea ahalbidetzen du
- Aukera egokiena dela dirudi
- Aukera hau atsegin dut errotonda parkea ukitu gabe zentratuta geratzen delako
- Oro har, bat datoz errotondaren ardatza eta Pioko aldapa; horrek erraztu egiten du bien arteko lotura.
- Sarbide guztiak errazten direla
- Aukera hau da gehien atsegin dudana eta errotonda zentratuago egongo balitz, hobe.
- Lorgarriena dela ulertzen dut. Nik zati bat kenduko nuke Olaondo zeharkalearen eskuinaldean
- Funtzionala dela
- Aukera hobereana dela uste dut
- Egokiena da: Kostu txikia eta berdegune gehiago
- Parkea errespetatzen dela eta zirkulaziorako egokia dela dirudi
- Biraketak besteetan baino argiagoak dira

#### Ez dut atsegin:

- Autobusek zailtasunak izango dituztela
- Ez zait ondo iruditzen bidegorria ez aurreikustea
- Errotondak aldapa daukala oraindik eta ez dela zentratuta geratzen Autobusak geratzeko lekua ez dela eroso

Modu horretan Foroak forma eman dio udaletxeak egin duen eskaerari. Legazpiko Agenda 21eko Forora etorri diren pertsonen iritziak, balorazioak, argudioak eta lehenetsiak jaso ditugu. Eta lortu den argazkia argia da.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Orain Legazpiko Udalaren lana da jasotako informazio guztia, argudioak eta aukerak baloratzea eta azken erabakia hartzea. Eta Foroaren azken ohar hau ahaztu gabe: *Proiektuan bidegorria sartzea garrantzitsua dela.*

### **Agur esateko ordua iritsi da, uda ona izan dezazuela!**

Saio honekin urteko lehen seihilekorako Foroak prestatuta zituen egutegia betetzen dugu. Gure hurrengo hitzordua datorren urriaren 7an izango da, osteguna. Alajaina!

Ordura arte, agur esaten dugu eta gustura geratzen gara lan ona egin dugulako eta, gainera, guztion artean. Guztioi, eskerrik asko!!! Legazpiren alde lan egiteko jartzen duzuen ahalegin, gogo eta maitasunik gabe, ezinezkoa izango litzatekeelako!



Presarik gabeko uda izan dezazuela!  
Ondo izan!